186/2026 Ebazpena, sinadura elektronikoaren datakoa, Enplegu Publikoko sailburuordearena, zeinaren bidez aurretiazko kontsulta publikoa egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea aldatzeko lege-aurreproiektua egin aurretik.

Kod. Esp. Tramitagune: *DNCG_LEY_8307/26_05*

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluak, "Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea" izenburupean, kontsulta publikoko izapide bat artikulatzen du, lege- edo erregelamendu-proiektu edo -aurreproiektu bat egin aurretik, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jasotzeko, honako hauei buruz:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
c) Arauaren helburuak.
d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorrei dagokienez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluak honela arautzen du izapide hori:

“11. artikulua. – Aldez aurreko kontsulta herritarrei

1. – Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo organoak kontsulta publikoan bilduko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, gizartearen iritzia. Herritarrei aldez aurreko kontsulta egiteko izapidean beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela eta arautu beharreko eremuan edo sektorean berdintasuna sustatzen duten elkarteek parte hartuko dutela ziurtatzeko. Era berean, aurretiazko kontsultetan parte hartzen duten pertsona guztien hizkuntza-eskubideak errespetatuko dira, bai administrarienak, bai herritarrenak.

2. – Aurretiazko kontsulta kapitulu honek arautzen duen prestaketa-fasean sartzen da, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela, ***xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek beren iritzia emateko aukera izan dezaten****, behar adinako* ***epean, hamabost egunetik beherakoa izan gabe****, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik.*

3. – ***Aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea*** *sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo -organoak bete ahal izango du,* ***Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita****. Hala, herritarrei berariaz gonbidatuko zaie informazioaz iritzia eman dezaten, honako hauei buruz: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.*

4. – Testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onartu ondorengo araugintza-prozeduraren instrukzio-fasean, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak bete egin dezake, memorietan jasota utzita, artikulu honetan jasotako herritarren parte-hartzearen eskakizuna".

Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea aldatuko da. Lege hori behin aldatu zen Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren bidez, espetxe-administrazioko kidego bereziei buruzko lau xedapen gehigarri gehitzeko (bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena). Zehazki, Espetxe Administrazioko kidego bereziak eta eskalak sortu ziren, eta haien funtzioak eta sartzeko titulazioak ezarri ziren.

Orain proposatzen den aldaketa berriaren helburua da xedapen gehigarri horiek (bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena eta zortzigarrena) berridaztea, hiru xedapen gehigarri gehitzea (bederatzigarrena, hamargarrena eta hamaikagarrena) eta, azkenik, xedapen iragankor berri bat gehitzea (bigarrena).

Proposatutako aldaketaren helburua da "Espetxe Administrazioari" buruzko erreferentziaren ordez beste izendapen zabalago bat jartzea, Administrazio Orokorreko eskaletako beste lanpostu batzuk sartu ahal izateko, lotura estua dutenak, hala nola Justizia Administrazioko organo judizialei eta teknikoei laguntzea, profesionalek titulazioa partekatzen baitute (psikologoak, gizarte-langileak, hezitzaileak).

Aldaketa horren ondorioz, Espetxe Administrazioko egungo lanpostuak eta zigor-betearazpenaren arloan eta Justizia Administrazioko organo judizial eta teknikoei laguntzeko eginkizunak betetzen dituzten lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostuak (guztiak Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Justizia Sailburuordetzari atxikiak) sartzen dira, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostu bihurtuko dira.

Neurri horrek efikazia eta efizientzia handiagoa dakar antolaketa-mailan; izan ere, murriztu egin dira deitu beharreko hautaketa-prozesuak, eta, gaur egun, karrerako funtzionario eta lan-kontratudun langile finko izateko 14 hautaketa-prozesuetatik 7 hautaketa-prozesutara igaroko litzateke, lanpostu horiek 7 funtzionario-eskala bakarretan taldekatzeko proposamenaren ondorioz.

Era berean, homogeneizatu egiten dira administrazio publikoei lan-araudia eta funtzio publikoari buruzko araudia aplikatzearen ondorio ekonomikoak, administrazio honetako enplegatu publikoen arteko berdintasun-printzipioa bermatuz.

Xedapen gehigarri berriek honako hauek arautuko lituzkete: karrerako eta bitarteko funtzionarioak kidego eta eskala berrietan integratzeko prozedura, lanpostu-zerrendak egokitzeko prozedura eta, azkenik, aldi baterako enplegurako lan-poltsak integratzeko prozedura.

Azaldutako guztiagatik, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 4.c) eta 16. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Aurretiazko kontsulta publikoa egitea, hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren lanketari.

Bigarrena. – Dagokion iragarkia argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Sin.: Maite Barruetabeña Zenekorta
ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEA